

### 3. Bota bertsoa

Badatoz bertsoak, eta ea zer kontatzen diguten oraingo honetan!

- 1 Entzun arretaz bertsoak, eta unitatearen nondik norakoak ezagutuko dituzu. Ea gustukoa duzun!

1 Bizitza luzea eta  
ona nahi dugu guk;  
formula magikoa  
ba al dakizu zuk?

Osagai sekretuak  
hartzen baditugu,  
gehiago eta hobeto  
biziko gara gu.

LELOA

2 Lehenengo jan behar da  
gogoz, presa gabe,  
janari osasuntsua,  
bertakoa hobe.

Ordu asko lo egin;  
zortzi ez da aski.  
Izarak pegatzeko  
beldurrik ez eduki.

LELOA

3 Garbi mantendu behar  
dugu ingurua:  
etxea, ikasgela  
ta gure burua.

Ingurunea zaindu,  
bizi urtaroak.  
Euri edo eguzki  
naturarekin bat.

LELOA

LELOA:

*Ze gauza kuriosoa  
osasunarena  
pozik bizitzea da (maitia)  
botika onena.*

*Maite dituzunei  
kontatu guztia  
ea ikasten duten (maitia)  
gure abestia.*

**4** Pantailak itzalita  
heldu lagunari;  
aukera emaiozu  
irudimenari.

Energiaz topera  
mugitu gorputza  
zaindu ezazu eta  
gero hartu dutxa.

*LELOA*

Oihane Perea  
Doinua: *Arragueta kalean*

**5** Maitatu etxeokak  
ta lagunak berdin

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

*LELOA*

**2** Ohartuko zinen bezala, azken bertsoari hitzak falta zaizkio. Hemen dituzu faltan dituen hiru puntuak, baina kontuz, nahasirik daude eta. Ordenatu itzazu.

Maitatu etxeokak  
ta lagunak berdin

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

utzi kexatzeari  
ta umorez hartu.

Batzuetan datorrena  
behar da onartu

minak arintzen dira  
maitasunarekin.